



PRENTSA OHARRA

OLERKARIEN UDABERRIA

« Bainan mugak ez dira bakarrik geopolitikoak edo armatuak ». Apustu hiltzaile bat ez dira. Aintzineko lerro azkartu bat ere ez. Berdin daude beti gainditzen girela, egunsentitik gauerdirat, haurtasunatik biharamunerat, ikus daitekeenatik gordetuarat, heriotzatik bizirat, errealatik olerkigintzarat. Muga horien gaintitze hori galdekatzeko denbora da, elkartzen duen mundu horrek, harritzen duena, arrotz sendiarazten duena, zatitzen duen baino gehiago. Beti pusatu behar ditugun muga horiek. Urrundu behar dugun lanjera. » Sophie Nauleau

Senpereko herriak olerkigintza ospatzen du Olerkarien Udaberria gertaldi nazionalari parte hartuz. LARREKO Kulturgunean eta Mediatekan gertakari ainitz proposatuak izanen dira, 5. Artearen amodioa, hitzen maitasuna eta libertatea partekatzeko.

EGITARUA

Olerkigintza tailerrak, Martxoaren 14 asteartearekin, Mediatekan arratsaldeko 5-etan

Olerki irakurketa ttikiak bi partetan

- **Arratsaldeko 5-ak eta erditik 7-ak arte**

Liburuzainek hautatutako testu pollitak entzun ahalko dituzu. Denbora horren bitartean, maitatzen duzun olerki bat partekazen ahalko duzu eta idatzi duzun olerki bat ere bai.

Haurrentzat egina, memento hori krakada batekin bukatuko da.

Denentzat libro

- **Arratseko 7-tik 8ak eta erdi arte**

Testu eder horien gainera, Mediateka zure autoreak, maitasunak eta konposaketak partekatzerat gomitatzen zaitu! Ez dudatu eta zato, mikroa zurea da jentarteko memento horrentzat.

Zintzur bustitze batek irakurketa denbora hori bururatuko du, Itxaro BORDA idazlearekin elkarretaratzearen aintzin.

Denentzat libro

Itxaro BORDA eta Séverine DABADIE-rekin irakurketa eta mintzatzea bere liburuari buruz : « Herri hau poema bat da », arratseko 8-ak eta erditan.

Itxaro BORDA-k euskaraz eta frantsesez bere olerki batzuk irakurtuko ditu, Séverine DABADIE-ren argazkiak inspiratu dizkituenak. Irakurketarekin bertan, argazkilariak bere irudiak proiektatuko ditu.

Hori eta gero, eztabaidak eta irakurketak segituko dira, « Haiku » idazketa tailer batekin bururatzuz, Japoniar olerki ttikiak dira. Parte hartzaileek « Haikua » frantsesez ala euskaraz idaztea posible izanen dute, denen aintzinean irakurtuz.

Denentzat libro

« Théâtre Mon Amour », Martxoaren 16an, ostegunarekin LARREKO Kulturgunean, arratsaldeko 2-etan

Maitasunaren pasioa bere forma guzietan, baina antzerkian maitasuna oroz gainera, dramagile anitzen tinta isurarazi duen gai horrek : Musset, Racine, Shakespeare... Cendrine Garry Santamaria-rekin, Leonardo Alejandro Hincapié-k taularatua.

Denentzat libro

Mahai borobila euskaldun bertularieri buruz, Martxoaren 16an, ostegunarekin, LARREKO Kulturgunean arratseko 8etan.

Muga : atzoko bizipenak eta gaurko erronkak

Zer da muga eta zer eragin du gure bizian ? galdera honi erantzuteko Elixabet Etxandi, Historian lizentziatua eta bi nafarroen arteko kontrabandan aditua, Iban Larrandaburu, mugazgaidiko lankidetzan eta zuzenbida publikoan doktoregaia eta Elena Casiriain antropologian doktoregaia bildu ditugu.

Denentzat libro – Eusko Ikaskuntza Iparralde-rekin lankidetzan

Bertso poteoa, Martxoaren 17a Ostiralarekin arratsaldeko 6-ak ta erditan.

Frantses eta Euskarazko olerkien irakurketa « Bertsulari lagunak » elkartearen kideen partez pintxo pote denboran.

Denentzat libro

Tapas gaualdia Arbaso elkarteak proposaturik, Martxoaren 18an LARREKO Kulturguneko barneko atarian arratseko 7-etan

Tapas gaualdi baten denboran, adierazpen libro momentu bati gozatu ahalko duzu, zure olerki irakurketak partekatzea posible izanen duzu.

Denentzat libro

Wanda et Daitoha kontzertuan, Martxoaren 18an, larunbatarekin LARREKO Kulturgunean arratseko 8-etan

Gaualdi baten paradan, *Daitoha* rapero/slamlari-ko hitzen indarrak eta *Wanda* musikariaren goxotasuna bidaiaraziko zaituzte.

4€-tik goiti – Denentzat libro

.....

Gertaldi astearen denbora guzian, apairu ekartzearen hartzailleek egunero Arretxea kolegioko ikasleek idatzitako olerki bat errezibituko dute.

Martxoaren 15-an, goizeko 8ak eta erditik 12ak eta erdi arte, Arretxea Kolegioko ikasleek isun poetikoak eta bertsuak pausatuko dituzte Senpereko zentroan aparkatu diren automoilen gainean.

Martxoaren 17an, Ostiralarekin, Arretxea Kolegioko ikasleek Herriko Etxean, komertzioetan eta Karrikarte-n olerkiak errezitatuko dituzte.